

# JULENE AZPEITIA LEHIAKETA 2013

## Ipuinak, Olerkiak eta Bertsoak

### ARAUAK

#### 1. Julene Azpeitia Lehiaketan hauexek izan daitezke parte-hartzaile:

- a) Durangoko eskoletako gazteak eta kanpoko eskoletan ari diren gazte durangarrak, 18 urte artekoak.
- b) 18 urtetik gorakoan, edonor.

2. Lanok euskaraz beharko dute idatzita egon, eta argitaratu gabeak beharko dute izan. Ipuinak, olerkiak edo bertsoak orrialde bakar batetik idatzita aurkeztu behar dira, eta ezaugarri tipografiko hauekin: Letra tipoa: Univers, Arial, Times New Roman edo antzeko bat. Puntua: 11 edo 12. Lerroen arteko tartea: 1,5.
3. Lanean ez da egilearen daturik jarriko, lema bat soilik. Egilearen datuak (izen-deiturak, adina, maila, telefonoa, helbidea eta lanaren lema) kartazal batean sartuko dira eta azalean lanari jarri zaion lema bera idatziko da. E-mailez bidalitako lanen kasuan, ipuina, olerkia edo bertsoa fitxategi batean bidaliko da **"ipuina"**, **"olerkia"** edo **"bertsoa"** izenarekin eta egilearen datuak **"egilea"** izeneko beste fitxategi batean.
4. Epaimahaia Durangoko Udaleko Euskara Sailak izendaturiko zenbait adituk osatuko dute.
5. Ipuinak, olerkiak edo bertsoak **apirilaren 22a** orduko bidali behar dira posta arrutatuz edo posta elektronikoz ondoko helbideetako batera:

#### JULENE AZPEITIA LEHIAKETA

Durangoko Udala – Euskara Saila  
Barrenkalea 17 - 48200 DURANGO

[juleneazpeitia@durango-udala.net](mailto:juleneazpeitia@durango-udala.net)

6. Epaimahaiak **maiatzaren 30ean** emango ditu ezagutzera irabazleen izenak. Gero, jendaurreko ekitaldi bidez banatuko dira sariak San Agustin kultur gunean.
7. Epaimahaiak sariren bat ez ematea erabaki dezake. Bestalde, saritutako lan guztiak antolatzaileen esku geratuko dira, eta Udaleko Euskara Saila berauek argitaratzeaz arduratuko da.
8. Lehiaketa honetan parte hartzeak arau hauek eta epaimahaiaren erabakia onartzea dakar.

# LEHIAKETAREN SAILAK

## Ipuinak, Olerkiak eta Bertsoak

### LHko 5. eta 6. maila

Ipuinak	Olerkiak	Bertsoak
Luzera: 1-3 orrialde artekoa	Luzera: 10-20 lerro	Luzera: 3 bertso
<b>Saria: liburu sorta (100 €)</b>		

### DBHko 1. eta 2. maila

Ipuinak	Olerkiak	Bertsoak
Luzera: 2-4 orrialde artekoa	Luzera: 20-30 lerro	Luzera: 4 bertso
<b>Saria: liburu sorta (100 €)</b>		

### DBHko 3. eta 4. maila

Ipuinak	Olerkiak	Bertsoak
Luzera: 3-6 orrialde artekoa	Luzera: 30-40 lerro	Luzera: 5 bertso
<b>Saria: 150 €</b>		

### Batxilergoa – Lanbide Heziketa

Ipuinak	Olerkiak	Bertsoak
Luzera: 4-7 orrialde artekoa	Luzera: 40-50 lerro	Luzera: 6 bertso
<b>Saria: 200 €</b>		

### 18 urtetik gora

Ipuinak	Olerkiak	Bertsoak
Luzera: 4-8 orrialde artekoa	Luzera: 50-70 lerro	Luzera: 8 bertso
<b>Saria: 600 €</b>	<b>Saria: 300 €</b>	

\*Oharra: olerkietan, olerki bat edo olerki sorta aurkeztu ahal izango da, adin-tarte bakoitzean bere neurrikoa.

Durango